

NAFARROAKO JARDUERA ARRISKUTSUEN KATALOGOA ONETSI ETA NAFARROAKO AUTOBABES PLANEN ERREGISTROA SORTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA	
Tramitea:	ARAUAK IDATZI AURREKO KONTSULTAK
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA
Araua:	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa

Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 7. artikulua pertsonen edo ondasunen arrisku larria sortzen ahal dieten jardueren katalogoa ezartzea aurreikusten du, baita horrelako jarduerak hartzen dituzten zentro, establezimendu, toki eta instalazioena ere.

Martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretuaren bidez, larrialdi egoerak sortzen ahal dituzten jarduerak hartzen dituzten zentro, establezimendu eta lekuen autobabeserako oinarritzko araua onetsi zen. Xedapen horrek Nafarroako Foru Komunitatearen esku uzten ditu arlo horren gaineko eskumenak. Araua irailaren 5eko 1468/2008 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

1. KONPONDU ASMO DIREN ARAZOAK

- Estatuko araudia ez da aski edo ez dago behar bezala egokitua Nafarroako Foru Komunitatearen behar eta berezitasunetarako.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren babes zibilaren arloan, ez dago autobabes planen arloko eskumenak garatzeko araudirik.
- Ez dago autobabes planen kontrol eta erregistrorik.
- Autobabes planetan, ez dago baliabideen eta bitartekoen gutxieneko ratoririk.
- Ez dago lokalen edukiera kontrolatzeko eta, horrenbestez, pertsonen segurtasuna bermatzeko neurririk.

2. ONESPENAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

- Autobabesaren arloan aurrera egin beharra dago, arrisku larriak desagertzeko edo gutxitzeko.
- Martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretuaren 5. artikuluan aipatzen den erregistroa sortu beharra dago, hots, Autobabes planen Erregistroa. Errege dekretu horren bidez, larrialdi egoerak sor ditzaketen jardueretan aritzen diren zentro, establezimendu edo tokien autobabesari buruzko oinarritzko araua onetsi zen.
- Jarduera arriskutsu batzuek behar dituzten gutxieneko baliabideak ezarri beharra dago.

- Lokal eta establezimendu batzuen edukiera kontrolatu beharra dago.

3. ARAUAREN HELBURUAK

- Atalase batzuk ezartzea, jakiteko Nafarroako Foru Komunitateko pertsoneri edo ondasunei arrisku larria sortzen ahal dieten jarduerak noiz dauden behartuak autobabes planak prestatzera.
- Jarduera Arriskutsuen Katalogoa onestea.
- Nafarroako Autobabes planen Erregistroa sortzea.
- Segurtasunerako eta edukiera kontrolatzeko neurriak zehaztea.
- Jarduera arriskutsuen titularren eskubideak eta betebeharrak ezartzea.
- Autobabes planak onetsi eta homologatzeko prozedurak ezartzea.

4. AUKERAN DAUDEN BESTE KONPONBIDE BATZUK

Segurtasun neurriak erregelamendu bidez zehaztu eta arautu behar dira.